

ELKARTEAREN ESTATUTUAK

LEHENENGO KAPITULUA

IZENA

1. artikulua.-

1983ko Irailaren 20n ASRPG, 01496 erregistro-zenbakiarekin Inskribatutako Donostiako ARATZ GIA TALDEA (EUSKAL HERRIKO GIAK) ELKARTEAREN Estatutu hauek aldatu egin dira, Euskadiko Elkarteel buruzko ekainaren 22ko 7/2007 Legean eta Elkartzeko Eskubidea arautzen duen martxoaren 22ko 1/2002 Lege Organikoan ezarritakoen arabera eta Euskal Herriaren Autonomia Estatutuaren 9. eta 10.13 artikuluetan azaltzen denarekin bat etorriz.

Elkartea arau hauen mende egongo da: alpatutako elkarteel buruzko legeak, estatutu hauek (legearen aurkakoak ez badira), elkartearen gobernu-organismoek behar bezala hartutako erabakiak (legearen edota estatutuen aurkakoak ez badira) eta Eusko Jaurlaritzak onesten dituen erregelamenduzko xedapenak (azken horiek osagarriak izango dira).

ELKARTEAREN HELBURUAK

2. artikulua.-

Elkarte honen helburuak honako hauek dira:

- Pertsonaren hezkuntza integrala sustatzea, Lord Baden Powel-en eredua jarraituz.
- Emakumeak gizonaren malla berean erabaki eta lan egin dezakeen gizarte bat sortu. Horretarako baterako hezkuntza sistema erabiliz.
- Pertsona aske eta Inguruarekiko konprometituak eratu.

Helburu horiek lortzeko, jarduera hauek egingo dira, ezarritako legezko betekizunak bete ondoren:

- 1) Jokua
- 2) Elkarbizitza
- 3) Natura
- 4) Progresioa
- 5) Kompromezua

Aurreko paragrafoan azaldutako jarduerak gorabehera, elkarteak, bere xedeak betetzeko, honako hauek egin ahalko ditu:

- Helburuak betetzeko edo horretarako ballabideak biltzeko era guztietako jarduera ekonomikoak gauzatu.
- Era guztietako ondasunak edozein tituluren bidez eskuratu eta eduki, eta mota guztietako egintzak eta kontratuak egin.
- Nolanahiko ekintzak burutu, betiere legeekin eta Estatutuekin bat etortzekotan.

ELKARTEAREN EGOITZA

3. artikulua.-

Elkarte honen egoitza helbide honetan egongo da: Kalea: Bordatxipi
zk.: 5 Herria: Donostia Posta kodea: 20013 Probintzia: Gipuzkoa

Oharpenak, posta-kutxa: 427 posta kodea: 20080 helbidera bidaliko dira.

Elkarteak beste lokal batzuk ere eduki ditzake Autonomia Erkidegoan, Batzar Orokorrek hala erabakitzen badu.

LURRALDE-EREMUA

4. artikulua.-

Elkarte honek nagusiki lurralde-eremu honetan gauzatuko ditu bere zereginak: Gipuzkoa

IRAUPENA ETA DEMOKRAZIA-ARAUUA

5. artikulua.-

Elkartea iraunkorra izateko eratu da, eta IV. kapituluan esaten den bezala ezohiko batzar orokorrean hartutako erabaki bidez baino ezingo da desegin, edo legeetan aurreikusitako arrazoiren batengatik.

Elkartearen funtzionamendua eta barne-antolamendua demokratikoa izango da, eta pluraltasuna erabat errespetatuko da. Erabat deusezak izango dira elkartzeko oinarritzko eskubidearen alderdietako edozein betetzen ez duten itunak, estatutu-xedapenak eta erabakiak.



DEPARTAMENTO DE JUSTIZIA
GOBIERNO VASCO

AKER

AKER



JUSTIZIA LEHIAKETA
ADMINISTRATIBOAK
Euzko Jaurlaritzak

DEPARTAMENTO DE JUSTICIA
Y ADMINISTRACION PÚBLICA
Registral de Asesores

BIGARREN KAPITULUA

AGINTE- ETA ADMINISTRAZIO-ORGANOAK

6. artikulua.- Elkartearen agintea eta administrazioa kide anitzeko organo hauen esku egongo da:
- Bazkideen Batzar Orokorra izango da organo gorena.
 - Zuzendaritza Batzordea izango da kide anitzeko zuzendaritza-organoko iraunkorra.

BATZAR OROKORRA

7. artikulua.- Batzar Orokorra bazkide guztiek osatzen dute, eta organo honen bidez adierazten dira bazkideen nahiak.

Batzar Orokorraren ahalmenak:

- a) Elkartearen jardura-plan orokorra onartzea.
- b) Urteko kontuak eta hurrengo ekitaldiko aurrekontua aztertu eta onartzea.
- c) Zuzendaritza Batzordearen kudeaketa onartzea.
- d) Estatutuak aldatzea.
- e) Elkartea desagitea.
- f) Lehendakaria, Idazkaria, diruzaina eta kide anitzeko aginte-organoko gainontzeko kideak, baldin badaude, izendatzea eta kargutik kentzea; eta horiek guztiak ikuskatu eta kontrolatzea.
- g) Beste elkarte batzuekin batera federazioak eta konfederazioak osatzea, edota horietatik ateratzea.
- h) Ondasun higiezinak erabili edo besterentzeko erabakiak hartzea.
- i) Aginte-organoko kideei ordaindu egin behar zaiela erabakitzea, hala komeni bada.
- j) Kuota arruntak eta bereziak ezartzea. Ahalmen hau, hala ere, Batzar Orokorrak aginte-organuari eskuordetu diezaiolke horretarako bereziki hartutako erabakiaren bidez.
- k) Bazkideak behin betiko kanporatzeko erabakia hartzea.
- l) Beste organo sozialak bati esleitu gabeko beste edozein eskumen.

8. artikulua.- Batzar Orokorrak ohiko bilkurak eta ezohiko bilkurak egingo ditu.

9. artikulua.- Batzar Orokorrak gutxienez urtean behin egin beharko du ohiko bilkura: lehenengo hiruhilekoan izango da, 7. artikuluko a), b) eta c) idatz-zatietan zehaztutako erabakiak hartze aldera.

10. artikulua.- Batzar Orokorra Zuzendaritza Batzordeak erabakitzen duenean bilduko da ezohiko bilkuran, bere ekimenez edota bazkideen %50(e)k eskatu duelako. Bilkura eskatzeko arrazoiak eta helburuak azaldu beharko dira baina, nolahi ere, honako gaiak aztertzeko eta erabakitzeko bilduko da:

- a) Estatutuak aldatzeko.
- b) Elkartea desagiteko.

11. artikulua.- Batzar Orokorra biltzeko deialdiak idatziz egin behar dira, eta bilkuren tokia, eguna eta ordua adierazi beharko dira, bai eta gai-zerrenda ere, eztabaldatuko diren gaien alpainan zehatzarekin. Deialdia egiten denetik gutxienez hamabost egun pasatu beharko dira bilkura lehen deialdian egiteko. Hala badagokio, bigarren deialdiaren data eta ordua ere adieraz daitezke. Dena dela, deialdi batetik bestera gutxienez ordu erdiko tarteak utzi beharko dira.


Batzar orokorrak, ohikoak nahiz ezohikoak, lehenengo deialdian balio osoz eratuta geratuko dira botoa emateko eskubidea duten bazkideen herena bertaratzen bada; eta bigarren deialdian, botoa emateko eskubidea duten bazkideen kopurua edozein dela ere.

12. artikulua.- Batzar Orokorraren erabakiak gehiengo soilaz hartuko dira, hau da, bertaratuen nahiz ordezkatuak balezko botoak ezezkoak baino gehiago direnean. Alabaina, bertaratuen edo ordezkatuak gehiengo kualifikatua beharko da (balezko botoak baliozko botoen erdia baino gehiago izatea, alegia) erabaki hauek hartzeko:

- a) Elkartea desagitea.

ANER
Alonso

- b) Estatutuak aldatzea.
- c) Ondasunak erabili edo besterentzea.
- d) Ordezkaritza-organoko kideei ordaintzea.



13. artikulua.- Bazkideek beste edozein bazkideren esku utzi dezakete batzar orokorretara joateko ordezkaritza. Ordezkaritza hori idatziz eskuordetu beharko da, eta Batzarreko idazkariari eman bilera baino gutxienez bi ordu lehenago. Elkartearen egoitza dagoen herritik kanpo bizi diren bazkideek ordezkaritza beste norbaiten esku uzteko agiria postaz bidali dezakete.

ZUZENDARITZA-BATZORDEA

14. artikulua.- Zuzendaritza Batzordea da Batzar Orokorraren xedapen eta zuzentarauei jarraikiz elkartearen interesak kudeatu eta ordezkatzen dituen organoa. Bazkideek baino ezingo dute osatu ordezkaritza-organoa.

Zuzendaritza Batzordea osatuko dutenak honakoak izango dira: Lehendakaria, idazkaria eta diruzaina.

Gutxienez urtean bi aldiz bildu beharko dute, eta elkartearen ekintzak bideratzeko beharrezkoa den guztietan.

15. artikulua.- Zuzendaritza Batzordeko kideren bat bilera horietara bost aldiz jarraian, edo, tarteka hamar aldiz agertzen ez bada, dagokion kargua utzi egin beharko du, hutsegite horiek ez baditu arrazoitzen.

16. artikulua.- Batzar Orokorrak hautatuko ditu Zuzendaritza Batzordeko kargudunak. Kargu horiek bost urterako izendatuko dira Batzordeak berariaz baliogabetu ezean. Kargudun berbera behin eta berriro hautatu ahal izango da.

17. artikulua.- Zuzendaritza Batzordeko kide izateko, ezinbestean baldintza hauek bete beharko dira:

- a) Adin nagusikoa izatea, eskubide zibil guztien jabe izatea, eta indarrean dauden legeetan ezarritako bateraezintasun-arrazoirik ez izatea.
- b) Estatutuetan aurreikusitako moduan izendatua izatea.
- c) Erakundeko bazkidea izatea.

18. artikulua.- Zuzendaritza Batzordeko kide izateko, lehendabizi, Batzorde Orokorrak izangaia hautatu behar du eta, gero, izendatu horrek kargua onartu behar du.

Zuzendaritza Batzordeko kideen dieta eta gastuak ordaintzea erabaki dezake Batzar Orokorrak.

19. artikulua.- Zuzendaritza Batzordeko kideek kasu hauetan utziko dituzte karguak:

- a) Agintealdia bukatzen denean.
- b) Dimititzen baldin badute.
- c) Bazkide izateari uzten diotenean, edo kargua betetzeko ezintasun-arrazoiak dituztenean.
- d) Estatutu hauetako 16. artikulua aplikatuz, Batzar Orokorrak kargua baliogabetzea erabakitzen duenean.
- e) Hiltzen baldin badira.

"a)" idatz-zatian agertzen dena baldin bada kargua uzteko arrazoiak, Zuzendaritza Batzordeko kideek jardunean jarraituko dute lehenengo batzar orokorra egin arte. Batzar horretan aukeratuko dira kargudun berriak.

b), c), d) eta e) idatz-zatietan agertzen dena baldin bada arrazoiak, hutsik gelditutako kargua betetzeko norbait behin-behingo izendatuko du Zuzendaritza Batzordeak, eta Batzar Orokorrak erabakiko du izendapena onetsi ala ez. Ezetsi egiten badu, behar diren kargu-izendapenak egingo ditu.

Organo honen osakeran egiten diren aldaketa guztien berri emango zaio Elkartearen Erregistroari.

20. artikulua.- Honako hauek dira Zuzendaritza Batzordearen zereginak:

- a) Elkartearen eguneroko kudeaketaz arduratzea, Batzar Orokorraren jarraibideekin bat etorritik eta haren kontrolpean.
- b) Elkarteak aurrera eramango dituen ekintzen egitaraua egitea.
- c) Gastu eta sarreraren urteko aurrekontua eta aurreko urteko kontuen egoera-orria Batzar Orokorrari aurkeztea, hark onartu ditzan.
- d) Batzar Orokorraren bileretako gai-zerrendak egitea, eta ohiko nahiz ezohiko batzar orokorretarako deialdiak egitea erabakitzea.

ANEX

ANEX

- e) Bazkideek egiten dituzten proposamen eta iradokizunei erantzutea eta horien inguruan hartu beharreko neurriak hartzea.
- f) Estatutu hauetako aginduak interpretatzea eta Estatutueta hutsuneak betetzea, betiere elkarteen inguruan indarrean dauden legeekin bat etorriz.
- g) Batzar Orokorrak berariazko erabakien bidez ematen dizkion eskumenak erabiltzea, betiere ez badira haren eskumen eskusibokoak.

21. artikulua.- Zuzendaritza Batzordearen bilkurak lehendakariak erabaki edo batzordekide batek eskatzen duen bakoitzean egingo dira. Bilkurako buru lehendakaria izango da, ez balego, lehendakariordea; eta horien faltan, batzordekide zaharrena.

Batzordeak hartutako erabakiak baliozkoak izateko, biltzen diren batzordekideen gehiengoak aldeko botoa eman behar du. Horretarako, gutxienez batzordekideen kopuruaren erdiak egon beharko du bilkuran. Berdinketarik egonez gero, lehendakariaren kalitateko botoa izango da erabakiko duena.

Idazkariak bilera-aktak egingo ditu eta akta horiek gero dagokion liburuan transkribatuko dira.

KIDE BAKARREKO ORGANOAK

LEHENDAKARIA

22. artikulua.- Lehendakariak beregain hartuko du elkarteen legezko ordezkariak, eta Zuzendaritza Batzordeak eta Batzar Orokorrak hartutako erabakiak gauzatuko ditu. Era berean, aipaturiko bi organo horietako lehendakaria izango da.

23. artikulua.- Lehendakariak honako hauek denak egiteko ahalmena izango du:

- a) Zuzendaritza Batzordearen eta Batzar Orokorraren bilera-deiak egin, bilerak bukatutzat eman, bileretan sortzen diren eztabaidak bideratu, eta boto-berdinketa gertatuz gero kalitate-botoarekin erabakitzea.
- b) Elkarteen ekintzen egitasmoa Zuzendaritza Batzordeari proposatzea eta elkarteen zereginak bultzatu eta bideratzea.
- c) Balotasunez erabakitako ordainketak egiteko agintzea.
- d) Sortzen diren premiazko arazoak konpontzea, eta egiten den lehenengo bilkuran Zuzendaritza Batzordeari horren berri ematea.
- e) Batzar Orokorrak berariazko erabaki bidez ematen dizkion eskumenak erabiltzea, betiere ez badira haren eskumen eskusibokoak.

IDAZKARIA

24. artikulua.- Idazkariari dagokio, zehazki, elkartean sartzeko eskabideak jaso eta izapidetzea, fitxategia eta Bazkideen Erregistro Liburua zaintzea, eta Akta Liburuaren zaintzaren eta Idazketaren ardura izatea.

Era berean, elkarteen arloan indarrean dauden legezko xedapenak betetzeaz arduratuko da, erakundearen agiri ofizialak zaindaz, elkarteko liburuaren eta artxiboen edukia egiaztatuz eta Zuzendaritza Batzordeko izendapenen eta egoitza sozialaren aldaketan berri emateko egin beharreko jakinerazpenak eginez agintari eskudunari.

DIRUZAINA

25. artikulua.- Egindako diru-sarrera eta ordainketen berri emango du diruzainak, eta diru-sarrera eta gastuen urteroko aurrekontua eta aurreko urteko kontuen egoera ere jakinaraziko du. Horiek guztiak Zuzendaritza Batzordeari aurkeztu behar dizkio, eta horrek Batzar Orokorrari, hark onartu ditzan.

HIRUGARREN KAPITULUA

BAZKIDEAK: ONARTUAK IZATEKO BALDINTZA ETA PROZEDURAK, ETA BAZKIDE-MOTAK

26. artikulua.- Elkartekide izan nahi eta baldintza hauek betetzen dituzten pertsona guztiak izan daitezke elkarteko bazkide:

ANER

Alonso

- Adin nagusikoa edo adingabe emantzipatua izatea, norberaren eskubideak erabiltzeko inolako lege-baldintzaren menpe ez egotea eta ebazpen judizial irmoaren bidez eskubideen erabilera mugatuta ez edukitzea.

Pertsona juridikoak izanik, organo eskudunak baliotasunez hartutako erabakiaren kopia aurkeztu beharko dute eta, bertan, elkarteak eratu nahi dutela eta ordezkari gisa nork jardungo duen adierazi beharko dute.

27. artikulua.-

Elkartean sartu nahi duenak idatziz aurkeztu beharko du bere eskabidea, b) bazkideren sinadurarekin eta lehendakariari zuzenduta. Lehendakariak eskaeraren berri emango dio Zuzendaritza Batzordeari, eta horrek erabakiko du eskabidea egin duena elkartean onartu ala ez. Erabakiaren aurkako gorako errekurtsioa jar dakioko Batzar Orokorrari.

BAZKIDEEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

28. artikulua.-

Bazkide guztiek honako hauek denak egiteko eskubidea dute:

- 1) Elkarreei buruzko Legearen edo Estatutuen kontrako erabaki eta jardunak inpugnatzea, inpugnatutako erabakiaren edukia ezagutu duten edo ezagutzeko aukera izan duten egunetik egutegiko 40 eguneko epean.
- 2) Elkarreen gobernu- eta ordezkaritza-organoen osakeri, elkarreen kontu-egoerari eta elkarreen jardueri buruzko informazioa jasotzea.
- 3) Elkarreko beste bazkideen nortasuna, diru-sarreraren eta gastuen egoera, eta elkarreen ekintzen garapeneren berri edozein unetan izatea, datu pertsonalak babesteko arautegian aurreikusitako moduan.
- 4) Batzar orokorretarako deiak jasotzea, batzar orokorretara joan eta hitz egin eta botoa emateko eskubidea erabiltzea, eta eskubide hori beste bazkideren baten esku utzi ahal izatea.
- 5) Elkarreen Estatutu hauen arabera, elkarreko zuzendaritza-organoei parte hartzea eta organo horietarako hautatzaile nahiz hautagai izatea.
- 6) Indarrean dauden legeetan zehaztutako bazkideen fitxategian agertzea, eta elkarreen ikurra, baldin badu behintzat, erabiltzea.
- 7) Estatutuen eta, egonez gero, barne-araudiaren ale bana edukitzea, eta zuzendaritza-organoei eskakizunak eta kexak aurkezteak.
- 8) Talde-ekintza sozialetan parte hartzea, eta bazkideentzako tresnak erabiltzea (elkarreen egoitza, liburutegiak, eta abar).
- 9) Bazkideari diziplinazko neurriak ezarri aurretik, bazkideak idatziz adierazitakoa kontuan hartzea eta neurri horiek hartzea eragin duten arrazoiak buruzko azalpenak jasotzea. Neurriak hartzeko arrazoiak bazkideei dagozkien betebeharrak ez betetzean soilik oinarritu daitezke.
- 10) Edozein unetan baja ematea. Hala ere, hartu bai balia bete gabe dituzten konpromisoak bete beharko dituzte.

29. artikulua.-

Bazkideen betebeharrak hauek dira:

- a) Elkarreen helburuekin bat etortzea eta helburu horiek betetzen laguntzea.
- b) Kuotak, derramak eta Estatutuen arabera bazkide bakoitzari dagozkion bestelako ekarpenak ordaintzea.
- c) Estatutuetatik eratorritako bestelako betebeharrak betetzea.
- d) Elkarreko zuzendaritza-organoei baliotasunez hartutako erabakiei men egin eta erabaki horiek betetzea.

BAZKIDE IZATEARI UZTEA

30. artikulua.-

Bazkide izateari uzteko arrazoiak honakoak izango dira:

1. Hil egitea (edo, pertsona juridikoen kasuan, desagitea).
2. Bazkidea bere borondatez joatea.
3. Arrazoi hauengatik, bazkide izateari uzteko zigorra jasotzea: Estatutuetatik eratorritako betebeharrak eta Batzar Orokorrak edo Zuzendaritza Batzordeak baliotasunez hartutako erabakietan ezarritako betebeharrak nahita eta larriki behin eta berriz hausteagatik.

ANER

Arriaga

ZIGOR-ARAUAK

31. artikulua.- Bazkideek behin eta berriz hausten badituzte Estatutuak edo Batzar Orokorrak nahiz Zuzendaritza Batzordeak hartutako erabakiak, Zuzendaritza Batzordeak bazkide horiek zigortu ahal izango ditu.

15 egunetik hilabetera eskubideak kentzetik hasi eta elkartetik betiko kanporatzera arteko zigorra ezar daiteke, ondorengo artikuluek adierazitako moduan.

Horretarako, zigorgarriak izan daitezkeen jokabideak aztertzeke ikerketa egin dadila erabaki dezake lehendakariak. Ikerketaren instrukziogilea idazkaria izango da, eta berak proposatuko dizkio Zuzendaritza Batzordeari hartu beharreko neurriak.

Zigorra ezartzeko ahalmena Zuzendaritza Batzordeak izango du, idazkariak ez du horretan parte-hartzerik izango (instrukziogilea delako), eta zigorra ezarri aurretik interesdunari entzunaldia eskainiko zaio. Zigortzeko erabakia arrazoitu egin beharko da beti, eta erabaki horren aurkako errekurtsua jarri ahaliko zaio Batzar Orokorrari.

32. artikulua.- Bazkideren batek elkartetik kanporatua izateko moduko ustezko egintzaren bat egiten badu, hau da, Estatutuotatik eratorritako betebeharrak eta Batzar Orokorrak edo Zuzendaritza Batzordeak baliotasunez hartutako erabakietan ezarritako betebeharrak nahita eta larriki behin eta berriz hausten baditu, gertaeren berri izatearren, lehendakariak idazkariari agindu diezaioke aurretiazko eginbide zehatz batzuk egin ditzala, behar den informazioa jasotzeko. Eginbide horiek ikusita, lehendakariak jarduerak artxibatzeke agintzea edo elkartetik kanporatzeko zigor-espeditenteari hasiera ematea erabaki dezake.

33. artikulua.- Elkartetik kanporatzeko zigor-espeditentea hasten bada, idazkariak, gertakariak egiaztatu ondoren, idatzi bat bidaliko dio interesdunari, leporatzen zaizkion karguen berri emateko. Kargu horiei erantzuteko, interesdunak bere aldeko arrazoiak azaldu ahal izango ditu hamabost eguneko epean. Epe hori amaituta, edonola ere, Zuzendaritza Batzordearen lehenengo bilkurako gai-zerrendan sartuko da kasua, eta batzordeak hartuko du erabakia. Erabakian ez du botorik izango espeditenteko instrukziogilea izan den idazkariak.

Elkartetik kanporatzeko erabakia interesdunari jakinaraziko zaio eta, era berean, hurrengo ezohiko batzar orokorrean errekurtsua aurkez dezakeela azalduko zaio. Hiru hilabeteren barruan batzar horretarako deirik egiten ez bada, errekurtsua ebazteko batzarrerako deia egin beharko da. Bitartean, Zuzendaritza Batzordeak inputatuari bazkide-eskubideak etetea erabaki ahal izango du, eta Zuzendaritza Batzordeko kide bada, kargu hori utzarazi beharko dio.

Batzar Orokorrari kanporatzeko espeditentea aurkeztuz gero, idazkariak espeditentearen laburpena egingo du, Zuzendaritza Batzordeak interesdunak aurkeztutako idatziaren eta egintzen berri zehatz Batzar Orokorrari eman ahal izateko, azken horrek dagokion erabakia har dezan.

34. artikulua.- Kanporatzeko erabakia arrazoitu egin behar da beti, eta erabaki hori interesdunari jakinarazi behar zaio. Interesdunak, eskubideaz baliatuz, auzitegietara jo ahal izango du bere ustez erabakia legearen edo Estatutuen aurkakoa bada.
35. artikulua.- Bazkideren bati kanporaketaren berri ematerakoan —berak nahi izanda edo zigorra ezarri zaiolako— bete gabe dituen betebeharrak bete ditzala eskatuko zaio.

LAUGARREN KAPITULUA

SORTZE-ONDAREA ETA AURREKONTU-ARAUAK

36. artikulua.- Elkarteen hasierako ondarea 0 eurokoa zen.
37. artikulua.- Elkarreak, bere jarduerak aurrera eramateko, diru-baliabide hauek aurreikusten ditu:
- a) Sarrera-kuotak.
 - b) Erabakitzen diren aldizkako kuotak.
 - c) Elkarteen ondasun eta eskubideetatik datozen emaitzak, eta lege jasotzen dituen diru-laguntzak, legatuak eta dohaintzak.
 - d) Zuzendaritza Batzordeak Estatutuen helburuak lortzeko egin beharrekotzat jotzen dituen jarduera zilegietatik datozen diru-sarrerak.

Aktara

Elkarte- eta ekonomia-ekitaldia urtekoa izango da, eta urte bakoitzeko Abuztuarenren 15ean itxiko da.

Jarduera ekonomikoak gauzatuz (zerbitzuak ematea barne) elkarteak lortzen dituen irabaziak bere helburuak betetzeko baino ez dira erabili beharko. Inola ere ezingo dira bazkideen artean banatu, ez eta haien ezkontideen edota haiekin antzeko afektibitate-harremanean bizi diren pertsonen artean eta haien senideen artean ere. Ezingo zaizkie, halaber, irabazteko asmoa duten pertsona juridiko edo fisikoek doan laga.

BOSGARREN KAPITULUA

ESTATUTUAK ALDATZEA

38. artikulua.- Estatutuak aldatzea propio horretarako delatutako bazkideen ezohiko batzar orokorrean erabaki behar da. Zuzendaritza Batzordeak hiru bazkidek osatutako batzorde-txostengile bat izendatuko du, aldaketa-egitasmoa idazteko. Egitasmo hori Zuzendaritza Batzordeak ezarritako jarraibideen arabera egingo da, eta batzorde berak jarriko du egitasmoa amaitzeko epea.

39. artikulua.- Aldaketa-egitasmoa epe barruan idatzi eta gero, lehendakariak Zuzendaritza Batzordearen hurrengo bilkurako gai-zerrendan sartuko du. Zuzendaritza Batzordeak egitasmoa onartuko du edo, bestela, lantaldeari itzuliko dio, berriz aztertu dezan.

Egitasmoa onartuz gero, Zuzendaritza Batzordeak hurrengo batzar orokorreko gai-zerrendan sartzea erabakiko du edo, bestela, horretarako propio batzar orokor baterako deia egitea.

40. artikulua.- Batzarrerako delarekin batera, Estatutuetak aldaketen testua bidaliko da, bazkideek egoki iruditzen zaizkien zuzenketak idazkaritzan aurkeztu ahal izateko. Zuzenketa horiek Batzar Orokorrari helaraziko zaizkio, batzarra egin baino zortzi egun lehenago jaso badira idazkaritzan.

Zuzenketak banaka nahiz taldeka egin daitezke, idatziz, eta aukerako beste testu bat izan beharko dute. Zuzenketak bozkatu ostean, Batzar Orokorrak Estatutuak aldatzeko erabakia hartuko du, eta Elkartearen Erregistro Orokorrean Inskribatzen denetik aurrera baino ez du eragina izango hirugarrenengan.

SEIGARREN KAPITULUA

ELKARTEA DESEGITEA ETA ELKARTE-ONDAREAREN ZERTARAKOA

41. artikulua.- Elkartearen arrazoi hauengatik desegingo da:

1. Bazkideek hala nahi dutelako. Nahi hori horretarako bildutako ezohiko batzar orokorrean azaldu beharko da.
2. Estatutuetan finkatutako epea edo baldintza bete delako.
3. Beste elkarte batek xurgatu duelako edo beste elkarte batzuekin bat egin duelako.
4. Legez ezarritako gutxieneko bazkide-kopururik ez duelako.
5. Epea irmo batek elkartearen desegitea agintzen duelako.
6. Elkartearen helburuak betetzea ezinezkoa delako.

42. artikulua.- Elkartearen deseginez gero, desegiteko erabakia hartu duen Ezohiko Batzar Orokorrak Kitapen Batzordea izendatuko du. Batzorde hori Zuzendaritza Batzordeko bi kidek osatuko dute eta dagoen diruaz arduratuko da.

Bazkideekiko eta besteekiko elkarte-betebeharrak bete ondoren, geratzen den elkarte-ondarea, geratzen bada behintzat, irabazi-asmorik gabeko erakunde bati edo irabazi-asmorik gabeko ekimenen bati eman beharko zaio.

AZKEN XEDAPENA

Estatutu hauek garatzeko asmoz, Batzar Orokorrak barne-araudia onartu ahal izango du, baina horrek inolaz ere ez ditu Estatutuetak aginduak aldatuko.

ANEX

Alkate

**Basamotak hark ikus-onesi dira, Euskal Autonomia Erkidegoa, Euzkadi Errege-
 Nagusiaren Erregelamendua onartzen duen argitalpen gisa. 1980ko Deialarua 2.
 horrekin bai datozen gainontzeko arauetan zehaztutako ondorentzerako.**

...a los efectos determinados en el Decreto 145/2003, de
...el Reglamento del Registro General de Asociaciones
del País Vasco y demás normativa concordante.

2013 MAY 16

2013 JUL 16
JOURNAL OF THE AMERICAN MEDICAL ASSOCIATION
PUBLISHED WEEKLY
Vol. 305, No. 1, July 1, 2013
ISSN 0003-6819
CODEN JAMA
Subscription prices: \$12.00 per copy, \$36.00 per quarter, \$144.00 per year (12 issues). Single copies \$12.00. Payment in advance. All orders, notices, and correspondence should be sent to the American Medical Association, 535 North Dearborn Street, Chicago, IL 60610-5412. Copyright © 2013 American Medical Association. All rights reserved. Reproduction of this journal is prohibited without written permission from the American Medical Association. Printed in the USA.

Es Douane a 16. MAY 2013 de 20

ERROLDAKO ARDURADUNA

AS.R.P.G. 1496

EL LA ENCARGADO/A DEL REGISTRO



JUSTIZIA STA HEFFI
ADMINISTRAZIO SAIDA
Sikarteen Frangisioo

DEPARTAMENTO DE JUSTICIA
Y ADMINISTRACIÓN PÚBLICA
Registro de Asociaciones